



# GURASOLEKU

0-5 URTEKO HAUREN  
GURASOENTZAKO ESKAINTZA

## ZERTARAKO GURASOLEKU

GurasoLekuk zure haurra ahalik eta euskal hiztun osatuena egitea du helmuga. Horretarako konektatu egin ditugu familiaren, eskolaren eta herriaren gogoak eta baliabideak.

GurasoLekun guraso guztiok daukagu gure lekua. Ea eskaintza honek zurea topatzen laguntzen dizun. Bidaia on!

**“Yo no sé euskera” “Entiendo pero no me animo a hablarlo”  
“Euskalduna naiz baina gaztelaniaz egiteko ohitura dut”  
“Ni nagusuiki euskaraz bizi naiz”**

GurasoLeku tiene como meta que tu niñ@ pueda utilizar el euskera plenamente. Para ello, hemos conectado las voluntades y los recursos de la familia, la escuela y el pueblo.

En GurasoLeku tod@s tenemos nuestro sitio. Deseamos que esta propuesta te ayude a encontrar el tuyo. ¡Buen viaje!

## GURASO EUSKALTEGIA

Haurrak ikastetxean dauden bitartean eta, ahal bada, ikastetxean bertan, gurasooi euskara-eskolak eskaintzea da egitasmo honen helburua. Euskara mailaren arabera, (euskaraz ez dakitenak, zerbait dakitenak edota maila ona dutenak) antolatuko dira taldeak. Komunikatzeko gaitasuna lantzea da helburua.

**UDALAREN  
DIRU-LAGUNTZA  
JASOTZEKO AUKERA DAGO,  
MATRIKULAREN  
%75 BERRESKURATUZ**

**CON LA BECA MUNICIPAL  
SE PUEDE RECUPERAR EL  
75% DE LA MATRÍCULA**

El propósito de este proyecto es ofrecer a las madres y padres clases de euskera mientras vuestras hijas/os están en la escuela. En el mismo se trabajarán aptitudes básicas para comunicarse en euskera, principalmente a través de las situaciones comunicativas que tenéis las madres y los padres con las niñas/os. Pueden participar quienes no sepan euskera o lo dominen poco o quienes quieran mejorarlo.

## GURASOLAGUN

Euskaraz hitz egiteko ohitura duten gurasoak ohiturarik ez duzuenekin elkartzen zaituzten egitasmoa da hau.

Batetik, **BIDELARIAK**, euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez duzuen gurasoak: egunerokoan zeuen inguruan hitz egiteko aukerarik ez duzuenok, euskara ikasten ari zaretenok, aspalditik euskaraz hitz egin ez eta jarriotasuna berreskuratu nahi duzuenok.

Bestetik, **BIDELAGUNAK**, euskaraz hitz egiteko ohitura eskuratu nahi duten gurasoei ekarpena egin nahi diezuenak, lanketa horretan haien bidelagun izan nahi duzuen gurasoak.

**BIDELARI ETA  
BIDELAGUNEK  
ELKARREKIN  
EUSKARAZ  
ARITZEKO  
OHITURA HARTZEA  
DA HELBURUA,  
BIDEAN  
HARREMANAK  
EGINEZ  
ETA ONDO  
PASAZ**

**Praktikan nola?** kasu honetan, adibidez, ikasgela edota ikasmaila bereko bi haurren gurasoak, haurrak ikastetxera eraman ondoren, kafetxo baten bueltan (edo zuek aukeratu nahi duzuen unean edo gunean) aritu zaitezke euskaraz, zeuek adostutako maiztasunarekin eta zeuek aukeratutako gaien inguruan.

## GURASOLAGUN AGENDA

Gurasoentzat eta zeuen seme-alabentzat izango da aisialdi eskaintza hau. Helburu nagusiak bi: **tarte atsegin bat igarotzea** eta **elkarrekin euskaraz aritzen gozatzea**.

Ikasturtean zehar;  
jolasak, txangoak eta tailerrak antolatuko ditugu,  
helduak eta haurrak batera aritzeko.  
Besteak beste; sukaldaritza tailerrak, orientazioprobak,  
ipuin kontalariak, mendi-txangoak, natura ezagutzeko ibilbideak...  
Hainbat familia batzen direnez, aukera aproposa ere bada lagun  
berriak egiteko. Asteburu-pasak ere antolatzen ditugu.

# IZENA EMATEKO ORRIA

Propuesta para madres y padres de niñ@s de 0 a 5 años

IZEN ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS

---

TELEFONOA

---

E-MAILA

---

HAURRAREN IZEN-ABIZENAK/ NOMBRE Y APELLIDOS DEL NIÑ@

---

IKASTETXEA/ CENTRO ESCOLAR

---

GELA

HH2

HH3

HH4

HH5

**GURASO EUSKALTEGIA** An izena eman nahi dut

Quiero apuntarme al **GURASO EUSKALTEGIA**

**ULERTU** / ENTENDER

**HITZ EGIN** / HABLAR

**Ezer ez** / Nada

**Hitz batzuk** / Palabras sueltas

**Zerbait** / Algo

**Esaldi batzuk** / Algunas frases

**GURASOLAGUN** En parte hartu nahi dut

**BIDELAGUN** izan nahi dut

**BIDELARI** izan nahi dut

**GURASOLAGUN AGENDA** parte hartu nahi dut